



Kalerako prestatuta zeukaten emanaldia kultur etxera egokitu behar izan zuten Musika Eskolakoek.



Sargardotegi Kalean jende ugari bildu zen Amalur trikiti eta pandero eskolakoen musikaz gozatzeko.

Santa Zeziliaren omenez

Astelehenean, azaroaren 22an, herria musikaz bete zen musikarien eguna alaitasunez ospatzeko

Musika izan zen nagusi, astelehenean, Santa Zezilia egunean gure herrian. Jon Lasaren Amalur eskolako gaztetxoak izan ziren lehenak Lasarte-Oriako kaleak musikaz betetzen. Arratsaldeko 18:00etan kalejiran abiatu ziren. Ordu erdi beranduago, eta eguraldi txarrak eraginda, Lasarte-Oriako Musika eta Dantza eskolak kultur etxean egin zion merezitako omenaldia musikari. Ikuskizun paregabea eskaini zuten. •

Lazo txuria biolentziaren aurka

Atzo, genero indarkeriaren kontrako eguna izan zen eta lazo txuri bat irudikatu zuten Zentro Zibikoko emakumeek. Goizean, berriz, gosaria, *Nosotras* filma eta autoestimuarri buruzko hitzaldia izan zuten.

Honetaz gain, Udalean, Villa Miretxun eta Emakumeen Zentro Zibikoan EUDElek sustatutako indarkeriaren aurkako puntu moreak ikusi ziren.

Gaur ere ekintzak egingo dira. Zentro Zibikoko taldeen eskutik antzerkia egongo da, 19:30etan, eta eguna ondo amaitzeko, afaria Araetan. •



Emakumeen Zentro Zibikoko hogeita hamar bat emakume bildu ziren atzo arratsaldean indarkeriaren aurkako lazo txuria egiteko.

KOOPERAZIOA /3

Froilan Elespe proiektuko lana ikusgai argazki erakusketan

BURUNTALDEA /4-5

Euskarazko produktuen katalogoa aurki etxeetan

KIROLA /6

Iñaki Racamonde garaile Euskadiko mendiko igoera txapelketan

SUGATE SUKALDEAK



- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
Lasarte-Oria
www.sugate.net

Zorion-agurrak



Leire

Zorionak eta txokolatezko bi muxu potolo, Maialen eta famili guztiaren partetik.



Hodei eta June

Zorionak zuen 3. urtebetetzean!!! Muxu handi bat guraso eta familiaren partetik.



Miguel Angel

Zorionak 14. urtebetetzean! Euskara taldeko irrien lagunen partetik maite zaitugu!



Ibai eta Urko

zorionak bikote ondo pasa zuen zorionetan eta muxu haundi bat guztiaren partetik



Udane

Zorionak printsesa!!! Suhar, amatxo eta aita-txoren partetik.

Hiribusaren ordutegia

Lanegunetan



tsst
www.tsst.info 943.361.741
Lasarte-Oria

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Cocheras	Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Cocheras
7:45	7:55	8:00	8:05	14:15	14:25	14:30	14:35
8:15	8:25	8:30	8:35	14:45	14:55	15:00	15:05
8:45	8:55	9:00	9:05	15:15	15:25	15:30	15:35
9:15	9:25	9:30	9:35				
9:45	9:55	10:00	10:05	16:15	16:25	16:30	16:35
10:15	10:25	10:30	10:35	16:45	16:55	17:00	17:05
10:45	10:55	11:00	11:05	17:15	17:25	17:30	17:35
11:15	11:25	11:30	11:35	17:45	17:55	18:00	18:05
				18:15	18:25	18:30	18:35
12:15	12:25	12:30	12:35	18:45	18:55	19:00	19:05
12:45	12:55	13:00	13:05	19:15	19:25	19:30	19:35
13:15	13:25	13:30	13:35	19:45	19:55	20:00	20:05
13:45	13:55	14:00	14:05	20:15	20:25	20:30	20:35

Telefonoak

Osasuna / Larrialdiak

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953

Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055

Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kirolegia ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
KIUB ... 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Urbarten garaje plaza bat alokatzeko. Tamaina handikoa, kotxe familiarra edo furgoneterako aproposa. Harremanetarako zenbakia, 943 376 115.

• Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trastelekuarekin. Dena berrituta eta amueblatuta. 3 balloi eta oso eguzkitsua. Igogailua ere badu. 246.500 euro. Harremanetarako telefonoa: 686 969 112

Salerosketak

• Fronteniseko 2 raketa berriak saltzen ditut 15 eurotan biak. Harremanetarako telefono zenbakia: 647 254 082. Jose Manuel.

Lan-eskaintzak

• Emakume euskaldun bat behar dugu adineko pertsona bat zaintzeko, astean zehar arratsalde batean eta larunbata eta igande gauetarako. Harremanetarako telefonoa: 610 953 258, Pili; 13:00etatik 15:00ak bitartean deitu.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Lan-eskariak

• Azterketak datozelako erreferentzuko klaseak ematen ditugu. Talde txikietan edo partikularrak, euskaraz edo erderaz. LH eta DBH-n dauden ikasleentzako!! Kale Nagusian. Harremanetarako telefono zenbakiak honakoak: 667 972 471 (Jon) eta 670 219 022 (Lorena).

• Orduka umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko emakumea eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia, 676 188 411.

• Umeak eta jende nagusia zaintzeko pertsona bat eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia, 635 217 362.

• Jende nagusia zaintzeko pertsona bat eskaintzen da. Interna edo orduka lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia, 697 946 546.

* Atal honetan oharra jarri nahi baduzu, bidali behoko helbideetara asteazken eguerdia baino lehen.

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 26

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Larunbata, 27

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Igandea, 28

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Astelehena, 29

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Asteartea, 30

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Asteazkena, 1

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Osteguna, 2

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chuda, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluak eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Udal ordezkariak Nezapako Noe Renderosen azalpenak entzuten zituzten argazki erakusketa bisiteratzerakoan.

Elespe proiektua handitzen doa

Nejapan egiten den lanaren argazkiak azaroaren amaiera arte egongo dira ikusgai kultur etxeko erakusketa aretoan

Astelehenean, Lasarte-Oriako Udalak *Hijos del Maiz* elkarteko eta Nezapako Froilan Elespe proiektuko ordezkarien bisita izan zuen.

"Guretzat zaindu behar den proiektua da. Froilan Elespe El Salvadorra joan eta hona etortzean, laguntza behar zutela esan zuen. Gerotik, hango herria laguntzen ari gara" azaldu zuen Jesus Zaballos alkateak.

Honela, Ricardo Gayol *Hijos del Maiz* elkarteko ordezkariak eta Noe Renderos Nezapako gazteak, besteak beste, aurten 40.000 euroko laguntza izan duen proiektuaren berri eman zieten udal ordezkariari.

Nezapako egoera

"2002. urtetik hona, hilketa eta biolentzia kasuen zenbakien igoera handia izan da" azaldu zuten.

"Nezapako herria gaztea da, biztanleriaren bi herenak 30 urte baino gutxiago ditu.

Langabezia handia dago eta hezkuntza izateko zailtasun handiak ditugu, gazteen %17ak ikasketak jarraitzen ditu seigarren mailara iristean eta %1a unibertsitatera iristen da. Langabezia tasa bikoitza da gazteetan eta emakumeek zailtasun gehiago dituzte lana aurkitzeko" gaineratu zuten.

"Emigranteek bidalitako diruarekin bizi dira gehienak. Horregatik, emigratzea da ametsa eta hori egiten ez dutenek, pandiletan sartzen dira dirua lortzeko", adierazi zuten.

Proiektua

Horregatik, *Hijos del Maiz* elkarteak eta *Procomes* erakundearen bitartez, Nezapako komunitatean gazteak biolentziatik urrundu eta etorkizuna emateko ari dira lanean.

Horretarako, Froilan Elespe Eskola ireki zen 2002. urtean Nezapako Casco Viejon.

"Honetan, tailerrak egiten dira, informatika, dantza, bideo ikastaroa, etab. Lan munduan sartzeko tresnak

ematea ere helburu dugu. Gimnasio txiki bat dute eta kirol txapelketak ere antolatzen ditugu," azaldu dute.

Honetaz gain, ingurumenaren aldeko hezkuntza eta gazteen lidergoa ere lantzen dute, "gazteentzako etxeetan batzordeak sortzen dira eta haiek zuzentzen dituzte".

Baina gaur egun, eremuko beste komunitate batzuetan ere gazteentzako etxeak ireki dituztela azpimarratu zuten, "egun ez dugu guztia eskola batean egiten, deszentralizatu egin gara. Garraio ezagatik jendeak ezin zuen Casco Viejo eskolara hurbildu. Horregatik, lau gazteentzako etxe ireki ditugu komunitate desberdinetan".

Gauzak honela, "1.725 gazte baino gehiagok parte hartu dute gazte etxeetako ekintzetan" eta zenbaki hori bikoiztu nahi dutela jakinarazi zuten. Horretarako, etorkizunean Lasarte-Oriaren laguntza izatea espero dutela ere adierazi zuten.

Azalpenak amaitzerakoan, Nezapako gazteen oroigarriak eman zizkieten Lasarte-Oriako alkateari.

Erakusketa

Honetaz gain, kultur etxeko erakusketa aretoan Nejalan egiten duten lana erakusten duen argazki erakusketa ere bisitatu zuten.

Argazkiez gain, Nezapako gazteek eskulangintza tailerretan egiten dituzten gauzak ikusi eta erosi daitezke.

Erakusketa hau azaroaren 30era arte egongo da ikusgai, asteleheneetik ostiralera, 18:00etatik 21:00etara. •

LITERATURA LEHIAKETAK

Bihar jakingo dira Literatura sarien irabazleen izenak

Lasarte-Oriako XXIV. Literatur Lehiaketako zein Haur eta Gazteen XXIII. Literatur Lehiaketako sariak banatuko dira bihar eguerdian Manuel Lekuona Kultur Etxean.

Azpimarragarria da, herri honetako lehiaketak duen garrantzia, Estatu osoko lanak iritsi dira helduen lehiaketan parte hartzeko. Haurren txapelketaren kasuan, herriko 500 bat haurren lanak aurkeztu dira. Horietatik euskaraz idatzitakoak ia 260 izan dira eta gaztelaniaz, aldir, 184.

Epaimahaia zail izan du aurten ere erabakia hartzeko. Hala ere, adostasun batera iritsi eta bihar jakingo da, nortzuk izan diren aurtengo saritukoak.

Saribanaketa honetan, gainera, Musika eskolako gitarra ikasleak egongo dira, poesia irabazleen irakurketa musikaz laguntzen. •

TTAKUN SARIA

Agus Mujikari omenaldi handia bihar

Bihar gauean, Goiegi jatetxean egingo den ekitaldian Agus Mujika, *Takolori* Ttakun Saria emango zaio.

Izan ere, Mujikak Ttakun kultur elkarte sortu baino lehen gure herrian euskararen alde lan asko egin zuen. "Maratoiaren aita da eta honetan ia edizio guztietan parte hartu du. Lasarte-Oriako euskara taldearen bultzatzaileetarikoa bat da, herriko pailazoen sortzaile, baita euskal girotze barnetegien sustatzaileetarikoa bat ere" azaldu digute Ttakun sariko antolatzaileek.

Hitzordua bihar 20:30ean izango da Goiegi jatetxean. Bapo afaldu ostean, hainbat ekitaldi prestatu dira omenaldia girotzeko, txalaparta, bertsok edo antzerkia, baina sorpresa ugari ere egongo dela azaldu digute antolatzaileek. •

SARIA

Patxi Larrañagaren haragia I. Parrillada Lehiaketan garaile

Egun hauetan Donostiako Kurasaalean egiten ari diren San Sebastian Gastronomika jardunaldien barruan, hainbat ekitaldi egiten ari dira, horien artean, astelehenean, I. Parrillada lehiaketa burutu zen.

Espainiar Estatuko hainbat jatetxek parte hartu zuten honetan, baina saria Gipuzkoan geratu zen. Izan ere, Josean Eizemendi Donostiako Illarra jatetxeko jabeak eta Patxi Larrañaga herritararen haragiak lortu baitzuten lehenengo saria.

Epaimahaia eta ikusleek haragia, honen erretzea eta, batez ere, zaporea izan zuten kontuan haien bozkek ematerakoan, baita Larrañaga eta Eizemendik haragiari buruzko egindako aurkezpena ere. •



Adin guztietako ikasleak daude Pintura eta marrazki eskolan.

MARRAZKI ETA PINTURA

Lekua dago marrazki eta pinturako saioan

Lasarte-Oria Bizilagunen Elkarteko Pintura eta marrazki eskolako saioetan lekuak daudela jakin arazi dute eskolako antolatzaileek. Asteazkenetan, 18:30etatik 20:30etara, 17 urtetik aurrerakoak doaz; ostiraletan, ordutegi berean, 7 eta 16 urte arteko gaztetxoak eta larunbatetan, berriz, 9:30etatik 11:30etara da saioa eta 10:30etatik 11:30etara txikiak, 3 urtetik 7raoak, doaz. Marrazten ikasi nahi duenak izena emateko aukera du. •




Ricardo Gayol eta Noe Renderosek azaldu zituzten proiektuaren aurrera pausoak.



'Polita da gurasoek haurraren liburu konpartitzea'

Euskal produktuen katalogaren 200.000 ale banatzen dira ipuinei dagokionez, ardurua Miguel Asiain Osioren esku dago. Euskal Herri osoan zehar. Egileek, urtero-urtero, interesgarri diren liburu guztiak aukeraketa bat egiten dute. Liburu eta hitz egiteko Asiain bera eilkarrikatatzeko aukera probestu dugu.



Katalogoan hainbat liburu eta ipuin agertzen dira. Eta, haur, zuzen zara aukeraketa egiten duena.

Miguel Asiain, Osi. Galbahera egitea tokatzen zait niri. Aukeraketa egin behar da, bereziki behar dut zer den garia eta zer den agotza. Egin behar den lan bat da, komentatzen nago katalogo aukeraketa egiteko konfiantza nigan utzi dutelako.

Bertze kontua da behar bezala aritzea. Epekin nahiko justu gabilza, katalogo atara ahal izateko liburuaren aukeraketa urriaren hasierarako egin behar izaten delako. Horrek aunitz mugatzen du aukeraketa. Agialaixe bazuk hainbat liburu argitaratu gabeko izaten dituzte. Lan sakonera egiten ahal dut lehenaldiziko sei hilabeteetan.

Enantzikun handia zura.

MA. Euskal Herria bilka da. Ia ginenek ezkeren berrak baduzte. Liburugintzan parte hartzen duten elementu ezberdinak, bestalde, interes ezberdinak dituzte. Agialaixe txek badute hain liburu luzeentzat ere interes eta katalogo honet bitartekari lanaren luntzoa baten du. Bitartekari eskaintza baitago. Irakalesi zein liburuazainei. Aukera egiten dudan unetik egongo da baten bat sobra ados ez dagoena. Alde horretatik, bai, bada erantzukizuna. Urtero kezka bera izaten du: ea garrantzitsua den kanpou utzi dudan zerbat. Badaut kezka hori. Zortzen hainbat liburuazainen laguntza du. Galzagorri inguruen dabilen jendeak ere aunitz laguntzen dit huts handirik ez egiteko.

Ipuinak edo liburuak aukeratzeko zere errepertu behar zaie?

MA. Banaiz bertze, bi hiztegi errateko kalitate literarioa alipatu beharko nuke. Baina Kalitate literarioa erratea eta deus ez erratea gauza bera du. Haur literaturari, bereziki, ilustrazioa eta testu kontuan hartzen ditugu. Ez bakarrik testuak, baizik eta baita ilustrazio aldiak egiten duten elkarriz-

Gero eta gehiago, badira liburugintzan formatu estandarretik ateratzen diren liburuak. Demagan: ehuneko liburuak, binaugelan lantzeko liburuak... gurea eskola mundura tarte-tareka aliegatzen ari dira. Eta hori ere kontuan izaten dugu. Agian ez dute literatur kalitate handia izango baina 0-3 urte bitarteko adin arte horietan ilustrazioari eta erabilpeneri garrantzia ematen dituzte. Haurrak ahal izateko gurasoek haurraren liburu horiek kontuan hartu behar dituzte.

Batzuetan gai aldiak hutsune gertatzen direnean, demagan abentura atalean guri argitaratu dela, urte horietan egin den apur horri lehentasuna ematen dugu. Katalogoan, bestalde, egiten den produktuz nazionala islatu nahi dugu, ez bakarrik taldekoak. Iparraldiko agialaixe ere tokia ematen diegu. Cikaletako eta beste eredu bat ditelako.

Irizpide ugari aukeratzeko garaian. Eta, bestalde eta, oro har, euskal ekizpenearen indarguneak eta ahuldaideak agertzen saiatuko al zinateke?

MA. Azken urte hauetan itzulpenak bere bidea hartu du, normalizatu egin da. Garai batean ez zen ondo ikusia izulpena eta orain hori aldatu egin da.

Fikzio lana nagusitu egiten da gurean. Ipuingintza nahiko ongi esaltuta dago. Abenturan gero eta agerpen gehiago dira, nahiz eta ahuldaide erakutsi hainbat urtez.

'Katalogoan, bestalde, egiten den produktuz nazionala islatu nahi dugu, ez bakarrik hegoaldekoa. Iparraldeko argialaixeak ere tokia ematen ditugu'

MA. Azken urte hauetan itzulpenak bere bidea hartu du, normalizatu egin da. Garai batean ez zen ondo ikusia izulpena eta orain hori aldatu egin da.

Katalogoa, paperean eta sarean

XIII. edizioa

- Merkatuan dauden produktuen artean hautaketa eragin da berritasuna, egokitasuna eta kalitatea kontuan hartuta; eta zortzi atalean sailkatuta jaso dira: musika, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailu eta jokoak, DVD eta informatikako produktuen katalogoan edizio berrira osatu dute Euskal Herriko 105 udal eta markomunitateko Euskara Zuzenbuzak.
- Buntatzean 9.000 ale banatu dira eta, orain, Euskal Herriaren 200.000.
- Katalogoan liburu, disko nahiz jostailu bakoitzaren guri gorabeharoko prezioa ematen da, eta zenbait atalean adminaren araberrakoa beste asko agertzen dira. Aukera dago, gainera, argialaixeak ere tokia ematen ditugu'

talearean denda birtualera iristeko produktuen gailuak erabiltzeko aukera hainbat produktuko berraketa mekaturatu ahal bezalaz komentatuz egin ahal izango dituzte beraien irakurleak, ezizen edota jostailuak haurtatu produktuen inguruan.

• Egun hauetan arturkezu produktuez gain, merkatuan aurkitu daitezkeen beste asko agertzen dira. Aukera dago, gainera, argialaixeak ere tokia ematen ditugu'

Komikia, ipuina, liburu... aukera zabala

Guztuz artean aukeraketa egiteko trantzeak jartri dugu. Miguel Asiain Osi. Eta haurrek berak nabarmenki litzkeen argialaixe batzuk.

"Komikian irati (ikastolen elkarteak). Oso liburu ona, ekarpen handia dela denitox. Xabrori aldiakirik atera dituzten liburuak alpagarrik dira. Alpatzeko breste bat Teletot da.

Saure argialaixe aspaldian komikia argitaratzen ari da Euskal Herrian eta hori eskertzeko da komikia hutsa zegoen esparru bat zeharo. Diamante haren jostailuko da.

Liburugintzan, haurrei dagokionez, Suseta argialaixeak hiru liburuak atera ditu. Animaliak izeneko bilduma batu dituenak. Bitxiak arte gurean ez zegoen hainbat korik. Aurten bada, eta hori ongi dago.

Aunitz gustatzen zaizkit, bestalde, Kalandrika-Pamela artean argitaratu dituzten liburuak. Horien artean Piztia araro bat.

Callitau. Lehen hiztegia (Aizkorri) nahiko ongi dago. Mairu tren namu tren ere aurrera da. Txiki txiki ereduak nahiko ongi dagoen liburuak dira. Liburu bidertuak (Pamiela), Tantiptak (Txalapatia), Baitasur (Izabellak) bakarrean (Izabellak) liburu ere oso polita da. Ezin aipatu gabe utzi Recreables (Izabellak), daude disko eta jostailuekin batera.

INTERNETEN
produktuz gehiago
eta azken ordukoak!
www.katalogoa.org

katalogoan
2010-11
www.katalogoa.org

PAPERAZKO EDIZIOA,
hautatutako produktuekin.

musika

filmak aldizkariak

komikiak liburuak

gurasoentzako

materiala

informatika

jostailu eta jokoak

Poesia eta antzezikia ez dut eranen normalizatu egin diren, baina ondoko hizkuntzetan dagoen agerpenekin konparatu daude. Urtero hainbat lan atera dute.

Uteko gogoreko eta ilustratzaile handiko liburuetan dagokionez, badira nagusi haur eta gero eta agerpen handiagoa dutea merkatuan. Argialaixe berrak sartu dira merkatu berri honetan eta alde horretatik merkatu handitu egin da.

Egileek ere aipatu nahiko nituzke. Berako produktuzko aspaldiko pateraz idazle hainbat baditugu, lau-hortz abentura komikia argitaratzen ari da Euskal Herrian eta hori eskertzeko da komikia hutsa zegoen esparru bat zeharo. Diamante haren jostailuko da.

Liburugintzan, haurrei dagokionez, Suseta argialaixeak hiru liburuak atera ditu. Animaliak izeneko bilduma batu dituenak. Bitxiak arte gurean ez zegoen hainbat korik. Aurten bada, eta hori ongi dago.

Aunitz gustatzen zaizkit, bestalde, Kalandrika-Pamela artean argitaratu dituzten liburuak. Horien artean Piztia araro bat.

Callitau. Lehen hiztegia (Aizkorri) nahiko ongi dago. Mairu tren namu tren ere aurrera da. Txiki txiki ereduak nahiko ongi dagoen liburuak dira. Liburu bidertuak (Pamiela), Tantiptak (Txalapatia), Baitasur (Izabellak) bakarrean (Izabellak) liburu ere oso polita da. Ezin aipatu gabe utzi Recreables (Izabellak), daude disko eta jostailuekin batera.

Uteko gogoreko eta ilustratzaile handiko liburuetan dagokionez, badira nagusi haur eta gero eta agerpen handiagoa dutea merkatuan. Argialaixe berrak sartu dira merkatu berri honetan eta alde horretatik merkatu handitu egin da.

Poesia eta antzezikia ez dut eranen normalizatu egin diren, baina ondoko hizkuntzetan dagoen agerpenekin konparatu daude. Urtero hainbat lan atera dute.

Uteko gogoreko eta ilustratzaile handiko liburuetan dagokionez, badira nagusi haur eta gero eta agerpen handiagoa dutea merkatuan. Argialaixe berrak sartu dira merkatu berri honetan eta alde horretatik merkatu handitu egin da.

Egileek ere aipatu nahiko nituzke. Berako produktuzko aspaldiko pateraz idazle hainbat baditugu, lau-hortz abentura komikia argitaratzen ari da Euskal Herrian eta hori eskertzeko da komikia hutsa zegoen esparru bat zeharo. Diamante haren jostailuko da.

Liburugintzan, haurrei dagokionez, Suseta argialaixeak hiru liburuak atera ditu. Animaliak izeneko bilduma batu dituenak. Bitxiak arte gurean ez zegoen hainbat korik. Aurten bada, eta hori ongi dago.

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 27

10:00etan, Ostadar - Zarautz (Kadeteen Ohorezko Maila) Michelinen.
11:30etan, Ostadar - Bergara (Infantil Txikiak, kopa) Michelinen.
13:00etan, Ostadar - Amaiak Bat (Infantilen Ohorezko Maila, txapeldu-nen fasea) Michelinen.
15:30etan, Texas Lasartearra - Ostadar (I. Erregionala) Michelinen.
17:15etan, Ostadar - Behobia (Erregional Gorena) Michelinen.

10:00etan, Zumaiaiko - Ostadar (Emakumezkoen Liga) Aita Mari, Zumaian.
11:00etan, Beti Ona - Ostadar (Partehartze infantilak) Beraun, Errenterian.
12:30etan, Zarautz - Ostadar (Emakumezkoen KDT F-II) Asti Txiki, Zarautzen.

Igandea 28

10:00etan, Ostadar - Urnieta (I. Kadetea) Michelinen.
11:30etan, Ostadar - Hondarribia (Jubenilen Ohorezko Maila) Michelinen.

11:15etan, Ostadar - Urola (Alebinak) Zubipe, Hernanin.



ARETO-FUTBOLA

Ostirala 26

HERRIKO TXAPELKETA
Kirol guneko kantxan
20:30etan, Buenetxea - Izkiña

Larunbata 27

HERRIKO TXAPELKETA
Kirol guneko kantxan
09:15etan, Izarra - ISU Leihoak
10:15etan, Lekuona Mena - S. Andaluz
11:15etan, Viña del Mar - Oria kris.
12:15etan, Ainhua - Ilargi
13:15etan, Epel - Obelix
15:00etan, Indaux - I.O.B H.K.
16:00etan, Ayete - Morrison's

17:45etan, ISU Leihoak - Gorka Pinturas Makax (Gipuzkoako Liga, I. maila) Kiroldegian.

18:15etan, Euskalduna - Aldatz H.K. (Nazional B maila) Allurralde kiroldegia, Andoainean.

Igandea 28

HERRIKO TXAPELKETA
Kirol guneko kantxan
10:00etan, Kalaberri Z - Naiban
11:00etan, Kataras - Illun

PILOTA

Ostirala 26

20:30etan, Aurrera Saiaz I - Intza (Eskuz binaka, I. Seniorra) Beotibar pilotalekua, Tolosan.

Larunbata 27

16:15etan, Intza - Urnieta (Eskuz binaka, II. Kadetea) Michelingo pilotalekuan.
16:15etan, Intza - Goierri (Eskuz binaka, I. Kadetea) Michelingo pilotalekuan.

15:15etan, Urnieta - Intza (Eskuz binaka, I. Kadetea) Urnietan.

IGERIKETA

Larunbata 27

10:00etan, Buruntzaldea IKT-ko benjamin eta alebinek ligako 2. jardunaldia dute, kiroldegiko igerilekuan.
10:00etan, Buruntzaldea IKT-ko Itsaso Tolosa Gipuzkoako selekzioarekin arituko da Euskal Herriko selekzioen arteko txapelketan, Iruñan.
16:00etan, Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior eta absolutuek 2. mailako txapelketako 2. jardunaldia dute, Oñatin.

ATLETISMOA

Larunbata 27

10:30etan, Landaberri eta Sasoeta ikastetxeko gaztetxoek alebin eta infantilen pistako eskolarteko lehiaketan parte hartuko dute, Anoetako belodromoan, Donostian.
16:30etan, herriko hainbat korrikalarik Azkoitiko VI. Herri lasterketan parte hartuko dute, Azkoitian.

Igandea 28

09:00etan, herriko hainbat Donostiako nazioarteko maratoin parte hartuko dute, Donostian.

JUDO

Larunbata 27

15:00etatik aurrera, LOKEko Josu Olmos judokak Espainiako Kadete kopako lehiaketan parte hartuko du, Alacanten.

Igandea 28

09:00etan, LOKEko judoka seniorrek Gipuzkoako txapelketa dute, Hernaniko kiroldegian.
10:30etan, LOKEko infantilek eskola kiroleko I. jardunaldia dute, Hernaniko kiroldegian.

ERRUGBIA

Larunbata 27

10:00etatik aurrera, Beltzak-Ostadar Jalai Errugbi eskolako infantilek kontzentrazioa dute, Ordizian.
10:00etatik aurrera, Beltzak-Ostadar Jalai Errugbi eskolako benjamin eta alebinek kontzentrazioa dute, Arrasaten.

Iñaki Racamondek garaikurra eskuratu zuen berriro ere

Bigarren urtez, Euskadiko mendi igoera txapelketako Klase-leko lehena izan da herriko gidaria

Maiatzetik urrira, Euskadiko Mendi Igoeren txapelketa burutu da. Zazpi proba egin behar izan dituzte parte hartzaile guztiak, Udana, Gorla, Aia, Urkiola, Antiguakoa, Leintz Gatzaga eta Urrakiko igoerak.

Azken honetan, urriaren 24ean, jakin ziren maila desberdinetako garaileak eta horietako bat izan zen, Iñaki Racamonde lasarteoriatarra.

Era honetara, bigarren urtez jarraian, lortu du herriko gidariak Euskadiko Mendi Igoeren txapela.

Matematikoki irabazle

“Gure mailan 4 edo 5 kotxe gabiltza lehian eta jende indartsua dago. Gauzak zailtzen dizkidan herriko besteren bat ere badago,” azaltzen digu.

Hala ere, Klase-1 mailako- en artean, Racamonde irabazle izan da bi probatan eta beste bostetan bigarren postua eskuratu du.

Honela, Urrakiko proba baino lehen, Iñakik bazekien bere mailako irabazle izango zela, “matematikoki Leintz Gatzagako proba irabazi ostean, bagenekien aurtengo txapelketa nirea izango zela.”

Hau guztiagatik, gidari lasarteoriatarra oso kontent dago aurtengo denboraldiarekin, “denboraldia zehar guztia primeran joan da. Autoak ez du arazorik eman eta ni ere oso ondo ibili naiz. Oso gustura.”

Lehia handirik ez

Hala ere, aurtengo lehiaketa errazagoa izan dela aipatu digu, “aurten ez da iazko lehia egon, azken momentura arte kotxe guztiak berdin ginena. Desberdina izan da.

Kiroletako oharrak

Igerilekua itxia goizez

Igeriketa txapelketa dela eta, udal igerilekua bihar, azaroaren 27an, goizeko 9:00etatik 13:00etara itxia egongo da erabiltzaileentzat.

Udal kirol instalazioko abonatuak egun horretan Andoingo, 943 300 147, eta Usurbilgo, 943 373 498, igerilekuak erabiltzeko aukera dutela gogora arazten du Udaleko Kirol Zerbitzuak.



Iñaki Racamonde aurten ere Euskadiko mendi igoeren txapelketa duna da. Arg.: I. Racamonde

Denboraldi hasierako lasterketan lehia handia izan zen. Baina, lehiakideetako batek istripua izan zuen eta ez du beste igoerarik egin. Gainera, iaz lehiatu zen Ax bat ere, nirea baino hobeto prestatua, ibili da lasterka, baina horrek aurten bi proba besterik ez ditu egin.”

Era honetara, “erregulartasunez eta pixkanaka errenta lortuz,” Iñakik bere mailako garaikurra lortu du.

Hala ere, Racamondek oraindik ez du saria bere eskuetan, “abenduan Euskadiko automobilismo federazioak antolatzen duen ekitaldian emango didate trofeoa,” azaldu digu.

Proba ezagunak

Euskadiko Mendi Igoeren txapelketan lehiatu dituen probak ezagunak ditu Racamondek, “iaz proba ber-

dinak egin genituen, Leintz Gatzagako izan ezik,” eta gogokoena Urrakiko igoera duela onartu du, “mitikoa da. Aurten, hala ere, ez da errepide eagoera onean egon eurragatik. 7 kilometroko bidea da eta bihurguneak eta azkar eta mantso joateko eremuak dituzu. Oso gustuko dut. Arratekoa ere proba polita da, baina aurten ezin izan da proba hori egin.”

Eskerrak

Honetaz gain, Racamondek eskerrak eman nahi dizkie garaipen hau posible egin duten guztiei, familia, ezagun eta, noski, Maite ileapaindegia, Corbatas taberna, Jalai taberna, Landare karrozeriak, Talur Service, Mus rotuloak eta Iglesias Sport babesleei. “Haiek gabe ezingo nuke parte hartu,” azpimarratu du Racamondek. •

Egunero

Erakusketa

METAMORFOSIAZ, Jasone Irigoien margo erakusketa. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.



Erakusketa

NEJAPAKO FROILAN ELESPE PROIEKTUKO erakuska. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Ostirala, 26

Antzerkia

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOKO antzerki taldearen antzezlan. Sarrera, 2 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.

Larunbata, 27

Sari banaketa

LITERATUR LEHIAKETAKO SARI BANAKETA. Manuel Lekuona kulturetxean, 12:00etan.

Saria

TTAKUN SARIA aurten Agus Mujikari, *Takolori* emangodio Ttakunek. Afaloste girotua: bertsoak, txalaparta, sorpresak... Goiegi jatetxean 20:30ean.



Jalgune elkartekoek San Pedro jaiak irudikatuko dituzte jaialdian

Urritasunaren eguna dela eta JALGUNE elkarteko kideek jaialdi ederra prestatu dute biharko. Herriko hainbat elkarte eta herritarren laguntzarekin San Pedro jaiak irudikatuko dituzte oholtza gainean. Urtero saiatzen dira jaialdi berezi eta hunkigarria prestatzen, eta aurtengoa ere, ez da gutxiagorako izango. Gonbidatuta zaudete beraz, animatu!

BIHAR, LARUNBATA 27
KULTURETXEAN 18:30EAN

Igande, 28

Zinea

EL PRINCIPE DE PERSIA haurrentzako filma eskainiko da. Sarrera, 3,15 euroko da. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan. GAZTELANIAZ



Asteazkena, 1

Ipuin-kontalaria

IPUINAREN ORDUA Koruko Zuru-tza eskutik 6, 7 eta 8 urteko haurrentzat. Urteak errespetatu egin behar dira eta haurrak bakarrik egongo dira. Behin ipuina hasi eta gero, ezin da gelatik atera. Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etatik aurrera, EUSKARAZ

Diaporama

GEORGIARI buruzko diaporama eskainiko dute Igor Unanuek eta Mikel Urdanpilletak Bidaietako Diaporamen zikloaren barruan. Jalgi kafe-antzokian, 21:30ean. EUSKARAZ.



Osteguna, 9

Hitzaldia

LA REVOLUCIÓN POR EL TEJADO hitzaldia eskainiko du Lucio Urtubiak, FAlek antolatuta "Fundacion anselmo Lorenzo". Hitzaldi hau CNT-ren 100. urteurrenaren ospakizunen barruan dago. Kulturetxean, 19:00etan.

Liburutegiko ordutegia
Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00 eta 16:00 - 21:00
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara
Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Telefonoa: 943 376181

ESAZU IRRATIA
Esazu irratiko programazioa
Ostiralero programa!
FMko 105,5 ean izango gaituzue ostirale-
ro 9:45etik 11:00etara

Oharrak

Sahararen aldeko egutegia

Euskadi-Sahararen Otsailak 27 kordinadorak egutegiak jarri ditu salgai Sahararen alde. Egutegi hauek Jalgi, Obelix, Sustrai, Ilargi, Iñaki eta Artizar tabernetan egongo dira salgai 7 euroren truke. Bildutako dirua, janariaren euskal karabana antolatzen laguntzeko bideratuko da.

Erraldoiak dantzatzeko ikastaroa

Erraldoiak dantzatzen ikasteko Arrieskalleta elkarteak ikastaroa antolatuko du. Interesa izanez gero, elkartetik pasa izena ematera edo arrieskalleta@gmail.com helbidera mezu bat bidali izena eta telefonoa jarritz.

Ikastaroaren lehenengo zatia Arrieskalletan bertan

emango da. Izena emateko azken eguna abenduaren 17a da. Animatu eta hartu parte! Izan zaitetz jaien partaide!

Jaiotzen lehiaketa

Danok Kide Guraso Elkarteak aurten ere XVIII. Jaiotzen Lehiaketa antolatuko du. Lanak abenduaren 20an eta 21ean entregatu behar dira 18:00etatik 20:00etara Blas de Lezo kaleko egoitzan. Jaiotzek 80 x 60 zm.ko neurria izan dezakete gehienez.

Euskarri sendoa ez duen jaiotzik ez da onartuko, ezta lehiaketa honetara aurreko urteetan aurkeztutakorik ere. Banaka nahiz taldeka har daiteke parte beti ere lan bakarra aurkeztuta.

Gutunazal itxi bat entregatu behar da lanarekin

batera, honen kanpoko aldean partehartzailerean edo taldekoen adina idatzi behar da; barruan, izena, helbidea eta telefonoa.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, diruzorroa, urrezko katea, zilarrrezko zintzilarioa, urrezko aliantza Jose Luis grabaketa-rekin, lau bizikleta, puntuzko txaketa, bi erloju, urrezko katea, bi betaurreko graduarria eta bizikleta kit bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteke epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Oztabide elkarteko bilera

Arranbide eta Oztaran-eko bizilagunei jakinarazten zaie, Oztabide auzo-elkar-teak bihar larunbata bilera egiteko deia egin duela. Azaroaren 27an goizeko 11:00etan OZTABIDEko lokalean, Oztaran ikastetxearen atzekaldean burutuko den bilerara Arranbide eta Oztaraneko bizilagun denak daude gonbidatuta.

Zalantzarik izanez gero, deitu 627818225 (Joseba) edo 661068301 (Pili) telefono zenbakietara edo idatzi oztabide@hotmail.com helbide elektronikora.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Eskutitzak

Hiribusa, ia, magikoa

Hau eta hura berritu nahian gabiltzan garai hauetan, berrikuntza deitu daitekeen gurgildun zera bat dabil Lasarte-Orian zehar azken hilabeteetan. Berrikuntza bat da guretzat, baina aspaldikoa ere bada herri handiagoetan: autobus urbanoa.

Lasarte-Oriako Udalak ipini duen zerbitzu publiko hau erabiltzen dugunok oso gustura gaude berarekin, eta zertan hobetu ere badauka.

Gustura gaude zerbitzu publiko honekin arrazoi askorengatik. Horietako batzuk hauek:

- Herriko zerbitzuak eta baliabideak hurbiltzen dizkigulako herriaren erdigunean bizi ez garen herritarro (osasan zerbitzuak, ikastetxeak, kultur etxea, udaletxeak, kiroldegia, dendak, beste garraioabideak -trena...-).

- Erdigunean bizi direni inguruetako lekuetara hurbiltzen dituelako (hilerrria, Santa Barbarako zirkuitua...).

- Edadekoei zein gazte-txoei modu autonomoagoan ibiltzeko aukera ematen dielako.

- Kotxerik gabe bizitzen ikasteko aukera ematen digulako, eta herrian bueltaka dabilen kotxe kopurua pixkat behintzat gutxitu ahal duelako.

Abantaila ugari dituen zerbitzu komunitario ederra da auzoetarako autobusa. Pixkanaka ari gara erabiltzen ikasten, eguneroko ohiturak aldatzea ez baita di-da batean egiten. Horretan jarraituko dugu: auzoa herrira, eta herria auzora hurbiltzen!

Kontxesi Berrio-Otxoa

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal proposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezu txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Bi film labor Lekeitioko zine jaialdian

Isa Fernandez de Agirrek grabatutako bi pelikuletan hartu du parte Mertxe Rodriguez-ek ere

Lasarte-orientarrek egindako bi film labor, Lekeitioko XXXIII. Euskal Zine eta Bideo Bileran parte hartzen ari dira, Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en DVDko "Teranga-Senegal" eta Kukuka, Antzerki eta Dantza Eskolak aurkeztu duen "A ze kuadrilla, amonak eta hila!". Isabel Fernandez de Agirrek grabatu eta muntatu ditu bi pelikulak, Mertxe Rodriguezek bietan parte hartu du eta biek azaldu digute nolakoak diren Katxi-porretak eta Kukukak aurkeztutako film labor hauek.

Jon ALTUNA

Asteartean eman zuten Lekeitioko Zine eta Bideo Lehiaketan "A ze kuadrilla, amonak eta hila!" pelikula eta asteazkenean "Teranga-Senegal". Biak, beste 25 pelikula amateurren artean lehiatuko dira.

Antzerki Eskolan Mertxe Rodriguezek duela zortzi urte-tik zuzentzen duen taldeak prestatu eta egin zuen "A ze kuadrilla, amonak eta hila!" 22 minutuko pelikula, Antzerki eta Dantza Astean aurkezteko. Antzerki taldea duela bi urte hasi zen jada kamerarekin jolasean, eta ia. 2009-2010 ikasurtean, film labor bat egitea erabaki zuen erdi txantxetan. "Aktoreei kamara aurrean agertzea gustatu zitzaion, esperientzia berri bat zen, eta pelikula egitea ausartu ginen" kontatu digu Mertxe Rodriguezek.

Zortzi urtetan elkarrekin ibili eta gero esan daiteke lagun koadrila osatzen dutela taldeko zortzi emakumeek, "familia bat" dio Mertxek. Isa Fernandez-en iritzi, "saltsera hutsak dira gainera denak, beti gauza berriak egin nahian, ez dira gelditzen". "Oso emakume jatorrak dira" borobildu du Mertxe Rodriguezek.

Mertxe bera, zuzendari baino taldeko bat gehiago sentitzen da: "Eskola sortu zenean, talde bat hartu nuen nik, besteek baino esperientzia gehiago nuelako. Antzerki klaseak ematen nituen pailazoekin hasi aurretik eta. Horrela hasi ginen eta horrela jarraitzen dugu".

ten nituen pailazoekin hasi aurretik eta. Horrela hasi ginen eta horrela jarraitzen dugu".

Talde-lana

Pelikularen gidoia taldeak berak egin zuen: "astero biltzen ginen mahai baten inguruan, tortilla baten aurrean, eta hortik atera zen" kontatu digu Mertxek. Grabatzera aste buru pasa joan ziren denak elkarrekin, Palentziako Baltanas herrira, laguntzaile mordoxkarekin batera, tartean Edu Galardi kamera Isa-ri laguntzeko. Honek adierazi zigunez, "film bukaerako casting-a ikusiz gero superproduktzioa dirudi, laguntzaile asko izan genituen".

Esperientzia berri bat izan zen pelikula Isa Fernandez de Agirrentzat ere. Ordura arte ez zuen horrelakorik egin, telebistan egin zuen lan, Goenkale grabatzen, 14 urtez, kamera eta errealaizazio laguntzaile. Dena den, aurreko esperientziak lagundu dio lan berri hauetan.

Grabaketa guztiak bezala "gogorra" izan zela dio Mertxek, izan ere, asteburu bakarra zuten. Batez ere, herriko zaharren egoitzan aritu ziren. Isak azaldu digunez, "ikusit zen zein gogoaz zegoen hori aurrera ateratzeko". Hotza edo gaua ez



Isa Fernandez de Agirre eta Mertxe Rodriguezek elkarrekin lan egiten dute.

ziren eragozpen izan. "Goizeko zazpitan hilerrian, bi gradurekin, kristoren hotza, eta han,..."

Ongi etorria kritikari

Taldean erabaki zuten Lekeition aurkeztea eta Zaragozan emakumeek egindako Film Topaketa batean ere aurkeztu dute, euskaraz gaztelarazko azpitu-luekin. Behin ausartu eta gero, ez dira kritiken beldur: Mertxeren iritzi, "guk badakigu zeintzuk garen, nola egin dugun, eta kritikarik baldin badago ongi etorria izango da hurrengo baterako, ze hurrengo bat egongo da segur aski".

Aurten aktoreen taldeak egingo duenaren berri ere eman zigan Mertxek: "gauza polit bat ari gara prestatzen. Isak kamera alde batera utzi eta

eszenatokira igoko da. Antzerkia da, baina abestu eta dantzatu egingo dugu eta kamera momentu konkretu batzuetan erabiliko dugu". Aurten ere argumentua eurak prestatzen ari dira, soilik emakumeek parte hartzen duten lanen bat bilatzea ez da erraza eta. Dena den, Pablo Barriok lagunduko die testuarekin eta Aitor Atxegak musikarekin.

Senegaldarrei buruz

Lekeitioko lehiaketan den beste filma, "Teranga-Senegal", Euskal Herrian bizi diren Senegaldarrei buruzko dokumentala, Pirritx eta Porrotxen DVDrako grabatu zuten, baina asko gustatu zaienez, Lekeition aurkeztu behar zutela sentitu dute: Isaren ustez, "zoragarri geratu zela eta konpartitu behar genuela pentsatu genuen, ez dadin DVDan soilik geratu. Gainera, Lekeitioko Zinemaldiak ibilbide luzea du: 33. aldiz antolatu den euskal bideo eta zine jaialdia da, eta beraz toki aproposa gurea

bezalako lanarentzat". Mertxe Rodriguezek zehaztu zigunez, Ondarruko Senegaldarrek in diskorako kanta bat grabatu eta gero pentsatu zuten polita litzatekela beraiei buruzko erreportajea ere egitea.

Gizakien Lurra Gobernu Kanpoko Erakundeko bolondresa da Isa Fernandez eta bertara proiektua ezagutzera joan zenean, bide batez, irudi batzuek grabatu zituen eta hemen bizi diren Senegalgoi buruzko erreportajea erabili, "hemen eta haien herrian nola bizi diren ikusteko". 17 minutuko erreportaje eta bideo klipa egin zuten azkenik.

Lan amateurrak

Amateur mailako lehiaketan aurkeztu dituzte bi filmak, Isa berak azaldu digunez, ez dutelako bitarteko profesionalik erabiltzen muntaiak egitekoan.

Katxi-porreta taldeko ikusentzunezkoen arduraduna da Isa Fernandez, pailazoen kamera ofiziala, beraz. "Ez da kamera bakarrik, errealaizadorea ere bada, muntaiak egiten ditu, argiztapenak, soinua,..." zehaztu du Mertxek.

Zeregin horretan oso gustura ari dela dio Isak. "Aukera zabala ematen dit. Lan eta erreportaje ezberdinak egiteko aukera, jende asko ezagutzeko aukera,..." Beti aldatu eta hobetu nahi dugu. Web orrialdera bideoak igotzen ditugu eta gauzak egiteko aukera handia dugu".

Bestalde, Edu Galardi eta biek gustura grabatzen dituzte herriko kultur ekitaldiak. Isa Fernandezek zera adierazi digu: "artxiboan zenbat gauza dauden ikusita, konturatzen gara zein garrantzitsua den guzti hori jasota edukitzea: nola janzen zen jendea, zein gauza egiten ziren, nolakoak zen plaza,..." Zalantzarik gabe altxor handia daukate jasota. •

"Kritikarik baldin badago ongi etorria izango da hurrengo baterako, hurrengo bat egongo da eta segur aski"

Azaroaren 27

Manuel Lekuona Kultur etxea

18:30

JALGUNE-rekin San Pedro Jaiak